


dmddhe
DERECHO A MORIR DIGNAMENTE
DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA
E U S K A D I

2021

Memoria

LABURPENA



Dokumentu hau DMD-DHE Euskadik 2021ean egin dituen ekinbide eta jarduera garrantzitsuenen laburpena da. [Esteka honetan](#) Memoria osoa ikusi eta deskarga daiteke.

DMD-DHE Euskadi irabazi asmorik gabeko elkarte da, 2002an sortua, eta Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona orok bere bizitza amaitzeko unea eta modua erabakitzeko duen askatasunaren alde egiten du, batez ere narriadura itzulezina eta sufrimendu jasanezina jasaten duenean. 1984an sortutako DMD (AFDMD) Elkarte Federaleko kide da.

2021 URTEA

2021 urte historikoa izan da heriotza duinaren ikuspegitik.

Urte askoren aldarrikapenaren ondoren, martxoaren 25ean, BOEk Eutanasia Arautzeko Lege Organikoa (LORE) argitaratu zuen, eta ekainaren 25ean sartu zen indarrean. Egoera jakin batzuetan hiltzeko laguntza eskatzeko eskubidea aitortzen duen bederatzigarren herrialdea bihurtu da Espainia.

Euskal Autonomia Erkidegoa izan zen, indarrean sartu zen egunetik aurrera, herritarrek eskubide berri hori erabili ahal izateko beharrezko bideak prestatu dituen lehen erkidegoetako bat.

Horretan lagundu zuten DMD-DHE Euskadiren jarduera politikoak, baita Osasun Sailaren jarrera onak, Osakidetzaren profesionaltasunak, EH Bilduren eta Elkarrekin IUREN ekintza parlamentarioek, EAJren eta PSOERen jarrerak, eta hainbat elkarte profesionalak, hezkuntzakoek eta sozialek zein komunikabideek zabalduzako informazioa ere. Onartu beharra dago aipatutako guztiok egindako ahalegina berezia, are gehiago, beste urte batez, Covid-19 pandemiaren ondorioz izan diren zailtasun gehigarriak kontuan hartuta.

Eskarne, narriadura kognitibo eta fisiko larria zuen Durangoko emakume bat, izan zen Estatuan LOREren lehen onuraduna. Eutanasia bidez hil zen uztailearen 23an, urte batzuk lehenago egindako Aurretiazko Borondateen Dokumentuan (DVA) adierazitako nahia errespetatuta gainera.

Abenduaren 13an, Osasun Sailak lehen datuak eman zituen LOREk EAEn izan duen aplikazioari buruz: 34 eskaera, 13 onartuak eta eginak, 12 tramitean, 1 baztertua eta 8 bertan behera utziak tramitean zehar gertatutako heriotzagatik.

2021ean ekitaldi asko antolatu dituzte legeak eragin edo interesa duten beste erakunde batzuek (administrazioak berak, talde politikoek, profesionalen elkargoek, gaixoen elkarteak, EHUK, herritarren elkarteak, etab.). DMD-DHE Euskadik horietako askotan hartu zuen parte.

Era berean, garrantzitsua izan da hedabideen interesa, LORE ezartzeko eta aplikatzeko jarduerak gertatu bitartean. Askotan DMD-DHE Euskadiren parte-hartzea eskatu dute.

LORE garatu eta aplikatzeak eragin handia izan du 2021ean DMD-DHE Euskadiren jarduera politiko eta informatiboan. Baina, era berean, herritarrak bizitzaren amaierako eskubideez sentsibilizatze eta kontzientziazteko ohiko helburuarekin jarraitu dugu elkarteak berak antolatutako ekintzen bidez (hitzaldiak, tailerrak, zineforumak, erakusketak, prentsa-komunikatuak, etab.), besteak beste, norberaren bizitza eta heriotza duina izateko eskubidea, ABD delakoaren erabilgarritasuna eta hori egiteko modua, eta, azken batean, heriotza duinari buruzko hausnarketa bultzatzeko eta tabua hausteko.

HELBURUAK ETA JARDUERAK

EKINTZA POLITIKOA



- Apirilaren 12a. Bilera Osasun Sailarekin, LORE Euskadin nola ezarriko den prestatzeko.
- Ekainaren 23a. Agerpena Eusko Legebiltzarrean, DMD-DHE Euskadik LOREri buruz egindako proposamenak aurkezteko.
- Parlamentuko talde guztiei bidali zitzaien informazioa, eta harremanak izan ziren EH Bildurekin eta Elkarrekin-IUekin. Kantabriako PSOEn ekitaldi batean parte hartu genuen.
- Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko ordezkariekin bi bilera egin ziren. Leitzako (Nafarroa) eta Portugaleteko udalek antolatutako ekitaldietan hartu genuen parte.

HEZKUNTZA- ETA HEDAPEN-EKINTZA



- Uztailaren 7a. EHUrekin lankidetzan aritu ginen “*Eutanasiari buruzko lege berriaren azterketa eta erronkak*” izeneko udako ikastaroa antolatzen.
- Azaroaren 3a. Bizkaiko Medikuen Elkargoak “*Eutanasia eta suizidio medikoki lagundua: alderdi legalak, profesionalak eta bizipenak*” gaiari buruz antolatutako jardunaldian parte hartzea.
- Azaroaren 9tik 21era. Gasteizen ezarri zen “*Heriotza duina eta ilustratua*” erakusketa artistikoa, bisita gidatuak eta hiru solasaldirekin osatu zena.



- Ekainaren 22tik 30era. Hitzaldiak hiru hiriburuetan, LORE indarrean sartzen zela-eta.
- Urtean zehar 26 mahai-inguru, hitzaldi, lantegi eta abarretan hartu dugu parte, beste erakunde eta elkarte batzuek antolatuak, gehienak LORE eta ABDari buruz mintzatzeko.
- 8 solasaldi edo mahai-inguru DMD-DHE Euskadik berak antolatuta, eta zineforum bat.
- 28 prentsa-artikulutan, 22 irratsaiotan eta telebistako 5 programatan hartu dugu parte, LORE inguruko gertaerekin lotuta gehienetan.
- Online informazio-jarduera handiagoa (Facebook, Twitter, Whatsapp, Youtube).



ELKARTEGINTZA

- Bazkideei informazioa ematea: 40tik gorako buletin eta mezu bidali dira posta elektronikoz, heriotza duinaren inguruko urteko gertaera nagusien berri emateko (ekitaldiak, elkarrizketak, LORE garatu eta aplikatzea, nazioarteko egoera, etab.). DMD aldizkariaren 84. eta 85. zenbakien banaketa.
- Arreta pertsonalizatua: 25 kontsulta erantzun ziren, gehienak aurrez aurre. Hiltzeko laguntza eskatu zuten pertsonaren 10 kontsulta. Harremanak landu ziren hainbat kabinete juridikorekin, LOREri buruzko erreklamazioak bideratzeko.
- Bazkideen aldizkako bilerak: Araban (7) eta Gipuzkoan (10).
- Zuzendaritza Batzordearen 5 bilera, eta 4 Federaleko (AFDMD) Zuzendaritza Batzordearekin. Euskadiko Ohiko Batzarra eta AFDMDren Batzar Nagusia ere.
- AFDMDk antolatutako 4 lantaldeetan parte hartzea helburu hauekin: ABD liburuxka, arreta pertsonalizatuaren zerbitzua, DMDren estatutuak LORE agertoki berrira egokitzea eta “*Heriotza duina eta ilustratua*” erakusketa artistikoa antolatzea.
- Beste elkarte batzuek antolatutako ekitaldietan parte hartzeaz gain, DMD-DHEk Osasun Publikoaren aldeko kontzentrazioan parte hartu zuen, apirilean, Gasteiz.

● **Bazkide kopuruaren bilakaera 2021ean:**

	bazkide kopurua 31/12/2020	2021		bazkide kopurua 31/12/2021
		altak	bajak	
ARABA	86	8	4	90
BIZKAIA	215	14	14	215
GIPUZKOA	127	11	9	129
GUZTIRA	428	33	27	434

● **Kontabilitatea 2021ean:**

DMD-DHE Euskadi AFDMDren “kutxa bakarreko” ereduan integratuta dago, autonomia erkidegoetako eta tokiko talde guztien diru-sarrerak eta gastuak partekatuz. Euskadiren balantzea hau izan zen:

	Diru-sarrerak (€)	Gastuak (€)
Bazkideen kuotak	24.657,00	
Fakturaturako egintzak	552,00	
Dohaintzak	0,00	
Gastu profesionalak (AFDMDren bulego teknikoak, zerbitzu informatikoak, aholkularitza fiskala, mezularitza)		15.857,44
Material korporatiboaren eta bulegoaren gastuak (Aldizkaria, ikus-entzunezkoak, lau orrikoak, DVA liburuxkak, erreprografia)		3.123,62
Espazio eta hornidura gastuak (Egoitzen alokairua eta mantentze-lanak, elektrizitatea, telefonia, ekipamendua)		2.567,84
Ekintzetako gastuak (Antolaketa eta joan-etorriak)		304,65
Zergak eta banku-komisioak		313,36
GUZTIRA	25.209,00	22.166,91

2022KO IKUSPEGIA

- 2022an DMD-DHE Euskadik jarraituko du defendatzen eta zabaltzen norberaren bizitzaren eskuragarritasunaren eskubidea, baita LOREn jasota ez dauden baldintzetan duintasunez hil ahal izatea ere, sufrimendua saihestuta eta norberaren borondatearen eta balio pertsonalen arabera, oraindik ez baita guztiz lortu. Jarraituko dugu bizitzaren amaieran dauden pertsonen eskubideen berri ematen, eta heriotzari, eta bereziki heriotza duinari buruzko hausnarketa eta elkarrizketa normalizatzen.
- Gainera, LORE indarrean egon den epe laburrean bizi izan den esperientziak adierazten digu hiltzeko laguntza eskatzen duten pertsonen arreta pertsonalizatua hobetu beharra dagoela: administrazio-prozesua xehetasunez ezagutu, kasu bakoitzak izan ditzakeen zailtasunak ulertu, eskaera eta ondorengo izapideak egiten aurretiaz orientatu, arazoak, atzerapenak edo ez-betetzeak konponbidean jarri, laguntza juridikoaz orientatu eta Osasun sailarekiko harremana normalizatu, antzemandako arazoan eta hobetzeko proposamenen berri emateko.



dmd dhe
DERECHO A MORIR DIGNAMENTE
DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA
E U S K A D I

✉ Araba kalea, 6 (erdisotoa), Bilbo

☎ 635 738 131

@ dmdeuskadi@derechoamorrir.org

www.derechoamorrir.org

www.derechoamorrir.org/dmd-euskadi